



**2022KO EKAINAREN 21EAN
EGINDAKO EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Bilera mota: Udal Osoko Bilkura Berezia
Data: 2022-06-21
Ordua: Arratsaldeko 20:00etan
Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Honen bitartez eta alkatearen aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

EGUNEKO GAI ZERRENDIA:

LEHENGO PUNTUA: ELDUAINGO UDALEKO GIZA BALIABIDEETAKO PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

BIGARREN PUNTUA: ELDUAINGO URAREN ZIKLO INTEGRALAREN KUDEAKETA GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN BIDEZ EMATEN JARRAITZEKO PROPOSAMENA.

HIRUGARREN PUNTUA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO INGURUMENENKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUAREN ETA ELDUAINGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, UDAL ESTALKIETAN EGUZKI PANEL FOTOVOLTAIKOAK JARTZEKO AUTOKONTSUMO PARTEKATUKO ERREGIMENEAN, TOKIKO ENERGIA KOMUNITATEEN BIDEZ.

Elduain, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deiari, 2022ko ekainaren 21ean, arratsaldeko 20:00tan, Udalaren Bazar osoa biltzen da ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Oihana Amundarain Zubillaga Alkatearen presidentziarekin.

Zinegotziak:

- Joel Wepsiec Mariezcurrena (20:00)
- Alain Barandarain Ayerza (20:00)

Ez da batzarreratu:

- Leire Talavera Etxeberria

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari - kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel



Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidenteak, 20:00 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.

GAI ZERRENDA:

LEHENENGO PUNTUA:

ELDUAINGO UDALEKO GIZA BALIABIDEEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA, BEREZIKI UDALHITZ HITZARMENA 2008-2010 XI. KAPITULUAN XEDATUTAKOA KONTUAN HARTUTA

Udal Osoko Bilkurak 2008ko azaroaren 20ko bileran onartutako Udalhitz hitzarmenaren XI. Kapituluaren xedatutakoa kontuan hartuta, ELDUAINGO Udaleko Giza Baliabideen Plan Estrategikoa onartzeko proposamena aurkeztu da.

Horrenbestez, espedientean jasotakoaren arabera, eta proposamenaren xedea eta arrazoiak aztertu eta eztatidatu ondoren, eta langilegoaren oniritzia duenez, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako hau,

ERABAKI DU:

LEHENA: Udal Osoko Bilkurak 2008ko azaroaren 20ko bileran onartu zuen Euskadiko toki-erakundeetako langileen 2008-2010rako lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onarritzat hartuta, bereziki XI. Kapituluaren adinagatik borondatezko erretiroen inguruko xedapenak, ELDUAINGO Udaleko Giza Baliabideen Plan Estrategikoa onartzea, horrekin batera Udalhitz hitzarmenari Giza Baliabideen Plan Estrategikoaren balioa emanez, bereziki aipaturiko atalari. Onartutako Planak atal hauek ditu:

- 1.- Hitzaurrea
- 2.- Aplikazioa esparru pertsonala
- 3.- Indarrean sartzeko data
- 4.- Iraunaldia
- 5.- Sustatutako erretirorako arauak eta zenbatekoak
- 6.- Aurrekontu erabilgarritasuna
- 7.- Planaren mugak eta LPZ-ren ajustearak
- 8.- Administrazio prozedura
- 9.- Udaltzaingo kolektiboaren bateraezintasunak.

BIGARRENA: Erabaki hau aplikagarria izango da 2021eko ekitaldiaren hasieratik aurrera.

HIRUGARRENA: Xedatzea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadin.

ELDUAINGO UDALEKO GIZA BALIABIDEETAKO PLAN ESTRATEGIKOA.

SARRERA



Funtzio Publikoaren erreformarako neurrien 30/84 Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarrian (5/2015ko Edlk EPOEren Testu Bateginak indarrean jarria) eta Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen (azaroaren 7ko 6/97 Legeak aldatua), 22. artikuluan jasotakoan oinarrituz, Toki Erakundeek euren autoantolaketarako gaitasuna medio, eta langilegoaren ordezkariekin adostuta, Udaleko Giza Baliabideak arrazionalizatzeko programak onartu ditzakete; beti ere, aurrekontu-mugen barruan eta gobernu-organoez ezarritako langilegoaren politikaren gidalerroen arabera. Plan horiek betekizunak betetzen dituzten funtzionario zein laboralei zuzendutakoak izango dira, eta giza baliabideak modu hobereanean erabiltzeko neurriak jasoko dituzte.

1.- HITZAURREA.

Udaleko Giza baliabideak arrazionalizatzeko programaren baitan jasotako neurrien artean **“Borondatezko lan-utzialdia, aurreratutako erretiroa, jarduneko zerbitzua uztea edo jarduneko zerbitzuan behin betiko baja hartzea sustatzeko pizgarriak”** izeneko atalean jasotakoak, Plantilaren pixkanako gaztetzea ahalbidetuko duen Plan Estrategikoa onartzea dago. Udala, gai honek hurrengo urteetan izango duen garrantziaz jabetuta eta bere antolakuntzaren barruan izango duen eragina aurreikusiz, Giza Baliabideetako Plan estrategikoa hau idaztera dator. Plan Estrategikoa honek, enplegatu publikoen pixkanakako erretiroa baldintza ekonomiko egokietan egin ahal izatea du helburu.

Guzti hau kontuan izanik, Udalak Funtzio Publikoaren erreformarako neurrien 30/84 Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarrian eta Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 22. artikuluan jasotakoan oinarrituz, aurrekontu mugen barruan eta eskagarriak diren eskakizunak erregulatuz, Udaleko enplegatuen aurretiazko erretiroa ahalbidetuko duten neurriak barnebidetuko dituzten Planak onartu ditzake. Plan hauek, deialdiak ezarritako datan zerbitzu aktiboko egoeran dauden eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorra aurretiazko jubilazio pentsioa jaso ahal izateko betekizunak betetzen dituzten funtzionario zein laboral finkoei zuzendutakoak izango dira. Plan honek, pertsonalaren eta plantilen berregokitze neurriak barnebidetuko ditu.

2.- APLIKAZIO ESPARRU PERTSONALA.

Programa hau, bertan, agertzen diren baldintzak betetzen dituzten ELDUAINGO funtzionario zein laboralei zaie aplikagarri, beti ere aurretik jarraian 10 urteko antzinatasuna behar da.

3. INDARREAN SARTZEKO DATA.

Plan hau “Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu” eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta aplikagarria izango da 2021eko ekitaldiaren hasierako ondorioekin.

4.- IRAUNALDIA.

Plan Estrategikoa hau indarrean egongo da, bertan behera utzi edo aldatzeko beste erabaki bat hartzen ez den bitartean

5.- SUSTATUTAKO ERRETIRORAKO ARAUAK ETA ZENBATEKOAK.



Atal honetan ELDUAINGO Udal Osoko Bilkurak, 2008ko azaroaren 14ko bileran onartu zuen Euskadiko Toki-Erakundeetako langileen 2008-2010erako lan-baldintzetako, XI. Kapituluaren xedatutakoa aplikatuko da, xehetasun hauekin:

Plan hau indarrean dagoen bitartean ELDUAINGO Udalean zerbitzu aktiboan dauden enplegatuek eta une bakoitzean erretiro arrunterako dagokion legezko adinari bost urte kendu ezkeroko adina beteta dutenak, Plan honetan jasotako neurriak aplikagarri izango zaizkie, beti ere dagokionean borondatezko erretirorako gizarte aurreikuspenetarako erregimenean ezarritako baldintzak betez gero.

Eskaera, sustatutako erretirorako adina bete baino gutxienez hiru hilabete lehenago egin beharko da.

Zenbatekoak honako hauek izango dira: (*)**

Kapitulu hau betetze aldera, eragina izango duen pertsonaren urteko ordainsari gordinaren 1/14rena izango da hilean jaso beharko duena. Urteko ordainsari hori hilabete hainbanatu eta gero kalte ordainaren kopurua eskala hau jarraituta kalkulatu da:

ADINA	HILABETE KOPURUA
60-61	21
61-62	17
62-63	12
63-64	9
64-65	6

(***) plan estrategiko honek duen betetzeko epe mailan UDALHITZEN barruan edozelango konbenio aldaketa egongo baliteke, goian aipatutako kopuru hauek errebisagarriak izango liratezke, plana bera aldatu gabe.

Erretiroagatiko kalte-ordaina jasotzeko baldintza: Ordaindutako edozein bestelako aktibitate burutzeko uko egitea. Efektu hauetarako, honako hau eskatu ahal izango zaie, eta derrigorrez aurkeztu beharko dituzte: Gizarte Segurantzako edo Ogasuneko txostenak, bizitza laboralari buruzkoak.

Bateraezintasunak: erretiroagatiko kalte-ordainak jasotzea bateraezina da Gizarte segurantzak edo dagokion mutualitateak egindako ezgaitasun aintzatespenarekin, aintzatespen horrek enpleguaren baja definitiboa suposatzen badu ELDUAINGO Udaletik sustatutako erretiroko data baino arinagoko epean. Egoera hau ematen bada, onuradunak jasotako kalte-ordaina bere osotasunean itzuli beharko dio ELDUAINGO Udalari.

Horretaz gain, Hitzarmenean jasotzen diren bestelako erretirorako modalitateekin bateraezina da, bai erretiro partzialarekin zein borondatezko erretiroarekin.

6.- AURREKONTU ERABILGARRITASUNA.

Urteko Aurrekontu Orokorrak, Plan hau indarrean dagoen bitartean, bere exekuziorako beharrezkoak den aurrekontu zuzkidura aurreikusi beharko du hasieratik.

7.- PLANAREN MUGAK ETA PLANTILA ETA LPZ-REN AJUSTEAK.



Aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko kalte-ordaindutako ekintza kopurua Plan honen exekuzioari aplikagarri zaion aurrekontu izateari lotuta dago. Aurretiazko erretiroarekin lotutako lanpostuen funtzioak eta hauekin lotutako plazak berraztertu egingo dira. Udalak dituen beharrian eta erronkei aurre egin ahal izateko baliabideak zehazteko helburuarekin.

8.- ADMINISTRAZIO PROZEDURA ETA TRATAMENDU FISKALA.

Udalaren Osoko Bilkurari dagokio gai honen inguruko erabakia hartzeko eskumena 7/85 Legearen 22-2-i artikuluan jasotakoaren arabera. Erabakia hartzeko nahikoa izango da bertaratu diren kideen baiezko botoaren gehiengo soilak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko Gipuzkoako 3/2014 Foru Arauaren 9.5 artikulua xedatzen duenaren arabera, salbuetsita egongo dira zerga ordaintzetik administrazio publikoetako giza baliabideen plan estrategikoetan arautu eta aitortutako zenbatekoak, betiere Langileen Estatutuko 51. artikuluan ezarritako arrazoietako bat oinarritzat hartuta, plan horiek parekatuta baitaude kaleratze kolektiboekin eta kaleratze nahiz kargugabetze objektiboekin. Zerga ordaintzetik salbuetsitako kalte-ordainaren zenbatekoak ezin izango du 180.000 eurotik gorakoa izan.

9.- UDALTZAINGO KOLEKTIBOAREN BATERAEZINTASUNAK.

Ez dagoenez, ez da ezer erregulatzen gai honi buruz.

BIGARREN PUNTUA:

ELDUAINGO URAREN ZIKLO INTEGRALAREN KUDEAKETA GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN BIDEZ EMATEN JARRAITZEKO PROPOSAMENA

Alkateak hitzarmenaren berri eman du (I. ERANSKINA).

Gipuzkoako Ur-Kontsortzioa Gipuzkoako hainbat udalek –horien artean ELDUAIN– eratu duten elkarte-oinarria duen zuzenbide publikoko erakundea da. Honako hau da erakunde horren xedea: “sare primarioetan saneamendua eta ura hornitzeko azpiegituraren ezerrera eta ustiapena eta dagozkion zerbitzuak prestatzea, guzti hori baldintza egokietan eta indarrean dagoen araudiaren arabera.”.

Estatutuetako xedapen horren arabera, Kontsortzioak Elduaingo udalerrian saneamendua eta ur-horniduraren “goiko” sarearen zerbitzu publikoa kudeatzen.

Elduaingo udalak interes handia du URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa, bi sareen kudeaketa sartuz, “goia” eta “behea”, baita beharrezko diren inbertsioak egitea ere, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren bidez ematen jarraitzeko.

Hori dela eta, Udaltzaren aho batezko adostasunez, **ERABAKITZEN DU:**

Lehena: 2022ko urriaren 1etik aurrera ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren bidez ematen jarraitzeko erabakia hartzea.



Hain zuzen, Elduaingo Udala Kontsortzio horretako kide da. Kontsortzioak Gipuzkoako Urak SA sozietatearen bidez emango luke zerbitzu hori. Zerbitzu horren barruan sartzen dira altako eta bajako sareen kudeaketa, bai uraren hornidurari dagokionez, bai saneamenduari dagokionez ere, bai eta egin beharreko inbertsioak eta hobekuntzak egitea ere.

Bigarrena: Uraren Ziklo Integralaren kudeaketarako sinatu beharreko testua onartzea, eta, gomendio horren bidez, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku uztea zaborra eta uraren ziklo integralaren kudeaketa, likidazioa eta tasen bilketa eta prezioak.

Hirugarrena: Elduaingo Alkate-lehendakariari zerbitzuaren kudeaketarako Gipuzkoako Uren Partzuergoarekin sinatutako den hitzarmena bideratu eta formalizatzeko ahalmena eman.

Laugarrena: Hartutako erabakiak jendaurrean zabaldu Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAREN eta Udaletxeko Iragarki taularen bidez, 30 laneguneko epean interesatuek espedientea aztertu eta nahi dituzten, ohar, erreklamazio, alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten.

Bosgarrena: Jendaurrean zabaldutako epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak besterik gabe behin betikotzat joko dira, beste erabakirik hartu beharrik gabe. Espedientea ikusi ahal izango da jendearen harretarako ordutegian interesatutzat jotzen diren pertsonak, eta iruditzen zaizkien iradokizunak, oharra eta alegazioak aurkeztu.

HIRUGARREN PUNTUA:

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO INGURUMENEN ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUAREN ETA ELDUAINGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, UDAL ESTALKIETAN EGUZKI PANEL FOTOVOLTAIKOAK JARTZEKO AUTOKONTSUMO PARTEKATUKO ERREGIMENEAN, TOKIKO ENERGIA KOMUNITATEEN BIDEZ

Alkateak lankidetzaz hitzarmenaren berri eman du, izanaz bere letraz letrazko edukia:

5.000 BIZTANLE BAINO GUTXIAGOKO UDALERRIEKIN SINATUTAKO HITZARMENA, UDAL ESTALKIETAN EGUZKI PANEL FOTOVOLTAIKOAK JARTZEKO AUTOKONTSUMO PARTEKATUKO ERREGIMENEAN, TOKIKO ENERGIA KOMUNITATEEN BIDEZ

CONVENIO CON 21 AYUNTAMIENTOS DE MENOS DE 5.000 HABITANTES PARA LA INSTALACIÓN DE PANELES SOLARES FOTOVOLTAICOS EN CUBIERTAS MUNICIPALES EN RÉGIMEN DE AUTOCONSUMO COMPARTIDO A TRAVÉS DE COMUNIDADES ENERGÉTICAS LOCALES

Donostia, 2022ko ekainak 22
San Sebastián, 22 de junio de 2022



ELKARTU DIRA:

Alde batetik, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatua, JOSE IGNACIO ASENSIO BAZTERRA jauna, Foru Aldundiaren legezko ordezkaria.

Eta bestetik, Oihana Amundarain Zubillaga Elduaingo Udaleko alkatea, Udalaren legezko ordezkaria.

Bi esku-hartzaileek lankidetzaz hitzarmen hau egiteko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta horretarako, hau

AZALTZEN DUTE:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, klima aldaketaren aurkako borrokarekin eta jasangarritasun energetikoarekin duen konpromisotik abiatuta, abenduaren 21eko 14/2021 Foru Dekretuaren bidez onartutako 2050erako Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategiaren helburutzat dauka, besteak beste, Gipuzkoan energiaren lehen mailako ekoizpena areagotzea – eta energia mendekotasuna murriztea –, eraikinetan eta hirigintzako jarduketan unitateetan kokatutako autokontsumorako energia sorkuntza banatuko ereduaren bidez, iturri berriztagarrien eta lagungarri diren jasangarritasun energetikoko beste teknologia batzuen erabilera oinarrituta, ezarpen-eredu jasangarriak, negozio publiko-privatuko ereduak baliatuz eta arreta berezia jarriz Gipuzkoako gizartearen interes orokorrean.

Ekintza horien ildotik, ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuaren bidez, onetsi zen IDAEk zuzenean autonomia erkidegoei laguntzak ematea hainbat pizgarri-programa gauzatzeko, besteak beste, energia iturri berriztagarriko autokontsumoarekin eta biltegiatzearekin lotutakoak, eta etxebizitza sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzearekin lotutakoak. Hori guztia Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresiliencia Planaren esparruan, eta, hala, Euskal Autonomia Erkidegoari 37.173.437 euroko dirulaguntza eman zitzaion.

REUNIDOS:

De una parte, D. JOSÉ IGNACIO ASENSIO BAZTERRA, en su condición de Diputado del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y en representación legal de la misma.

Y de la otra Oihana Amundarain Zubillaga, en su condición de Alcaldesa del Ayuntamiento de Elduain, y en representación legal del mismo.

Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente Convenio de Colaboración y a tal efecto,

EXPONEN:

La Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa (en adelante DGMA), desde su compromiso con la lucha contra el cambio climático y la sostenibilidad energética, contempla como uno de los objetivos de la Estrategia de Sostenibilidad Energética de Gipuzkoa 2050, aprobada mediante Decreto Foral 14/2021, de 21 de diciembre, impulsar el aumento de la producción primaria de energía en Gipuzkoa –y la reducción de su dependencia energética- a través del modelo de generación distribuida de energía para autoconsumo en edificios y unidades de actuación urbanística, en base a la utilización de las fuentes renovables y otras tecnologías de sostenibilidad energética de apoyo con modelos de implantación sostenibles, de negocio público-privados, con especial atención al interés general de la sociedad guipuzcoana.

En línea con dichas acciones, mediante Real Decreto 477/2021, de 29 de junio, se aprobó la concesión directa por parte del IDAE a las comunidades autónomas de ayudas para la ejecución de diversos programas de incentivos ligados al autoconsumo y el almacenamiento, con fuentes de energía renovable, así como a la implantación de sistemas térmicos renovables en el sector residencial, todo ello en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, habiéndose concedido a la Comunidad Autónoma del País Vasco una subvención de 37.173.437 euros para el conjunto de los programas.



EEEk dirulaguntza hori onartu ondoren, 2021eko irailaren 22an eman zuen Ebazpenaren bidez, energia iturri berriztagarriko autokontsumoarekin eta biltegitratzearekin lotutako pizgarrien programaren oinarri arautzaileak onartu, deitu eta argitaratu zituen.

Trantsizio ekologikoa eta lurralde kohesioa dira aipatutako planaren politikak bideratzen dituzten ardatzetako batzuk. Plan horretan, landa eremuetara eta udalerrri txikietara bideratutako neurriak aurreikusten dira, bereziki erronka demografikoa duten udalerrietara (5.000 biztanletik beherakoak); izan ere, udalerrri horiek lehentasunezko kolektiboa dira jatorri berriztagarria duten energiak eta autokontsumoa sustatzeko laguntza espezifikoko ezartzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, bai eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1 artikuluan aurreikusitakoa ere, non jasotzen baita aldundiek eskumena dutela ekonomia- eta kudeaketa-gaitasun txikiagoa duten udalerriei laguntza eta lankidetzak juridikoa, ekonomikoa eta teknikoa emateko; 2021eko uztailaren 1ean bilera telematikoa bat egin zen, eta bertara 5.000 biztanletik beherako Gipuzkoako udal guztiak gonbidatu ziren. Bilera horretan plan bat aurkeztu zen: udalerriko estalki publikoetan eguzki panel fotovoltaikoak instalatzea, tokiko energia komunitateak eratzea eta instalazio horiek 5 urtez ustiatzea; hori guztia Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren kontura eta kontratazio bakarrean oinarrituta egingo litzateke, kostuak murrizteko aukera emango duen zerbitzuen kudeaketa koordinatu eraginkorragoa lortuz.

21 udalek (besteak beste, zuk zuzentzen duzunak) aldeko erantzuna eman ondoren, 2021eko azaroaren 11n, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak EEERI aurkeztu zizkion dagozkion laguntza eskaerak, eta, 2022ko martxoaren 16ko eta martxoaren 29ko EEERIko zuzendari nagusiaren ebazpena jaso zen, zeinaren bidez erabakitzen baita GFARI 62.268,91 euro ematea Elduaingo proiekturako. Zenbateko hori instalazioaren kostuaren % 28,52 da, eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak nahiko kreditu dauka bere aurrekontuan aipatutako kontratazioaren guztizko kostuak, gainerako % 71,48a, osatzeko.

Tras la aceptación de dicha subvención por parte de EVE, mediante Resolución de dicha entidad 22 de septiembre de 2021 se aprobaron, convocaron y publicaron las bases reguladoras del programa de incentivos ligado al autoconsumo y al almacenamiento, con fuentes de energía renovable.

Tanto la transición ecológica como la cohesión territorial son algunos de los ejes que orientan las políticas del citado Plan, en el que se prevén medidas orientadas a zonas rurales y pequeños municipios, especialmente a los denominados municipios de reto demográfico (menores de 5.000 habitantes), los cuales constituyen un colectivo de prioridad sobre los que establecer ayudas específicas para el fomento de energías de origen renovable y el autoconsumo.

Teniendo en cuenta lo anterior, así como lo previsto en el artículo 36.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, que contempla la competencia de las Diputaciones en prestar asistencia y cooperación jurídica, económica y técnica a los municipios de menor capacidad económica y de gestión, con fecha 1 de julio de 2021 tuvo lugar una reunión telemática a la que fueron invitados todos los ayuntamientos de Gipuzkoa de menos de 5.000 habitantes, en la que se presentó un Plan consistente en la instalación de paneles solares fotovoltaicos en cubiertas públicas del municipio, constitución de comunidades energéticas locales (en adelante CEL) y explotación de dichas instalaciones durante 5 años, todo ello a cargo de la DGMA, y en base a una contratación única, logrando una gestión coordinada más eficiente de los servicios que permita reducir los costes.

Habiendo recibido una respuesta positiva por parte de 21 Ayuntamientos, entre ellos el que Vd. preside, con fecha 11 de noviembre de 2021, la DGMA presentó ante el EVE las correspondientes solicitudes de ayudas, habiéndose recibido con fecha de 16 de marzo y 29 de marzo del 2022 Resolución del Director General del EVE por la que se acuerda conceder a esta DFG la cantidad de 62.268,91 Euros en relación con el proyecto Elduain, que constituye el 28,52% del coste de la instalación, teniendo consignados en el presupuesto de la DGMA los créditos suficientes para completar los costes totales de la citada contratación por el correspondiente 71,48 %.



Ondorioz, adierazitako ekimena gauzatzeko lankidetzara esparria eta bi alderdiek beren gain hartuko dituzten betebeharrak ezarri behar dira.

Eragiketa osoari estaldura emango dion Kontseiluaren erabakia aipatu.

KLAUSULAK:

Lehena.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren eta Elduaingo Udalaren arteko lankidetzara baldintzak arautzea, udalerrira horretako (udal eraikin publikoak aipatu) estalkian eguzki energia fotovoltaikoko (instalazio kopurua) instalazioak jartzeko, tokiko energia komunitate baten bidez ustia daitezela.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartzen dituen betebeharrak.

- a) Ingurumen Zuzendaritza Nagusia arduratuko da eguzki instalazio fotovoltaikoak diseinatu eta egikaritzeaz, eta konpromisoa hartuko du obra horiek kontratatzeke beharrezko administrazio izapideak egiteko, obrak hasten direnetik jasotzen diren arte, eta, era berean, obraren zuzendaritza teknikoaren eta obrak zuzen eta erabat gauzatzeko behar diren izapide guztiak betetzearen ardura izango du. Horretarako, obraren finantzaketa osoa bere gain hartuko du, Energiaren Euskal Erakundeak proiektu horretarako jasotako dirulaguntzaren kargura (kostuaren % 38) eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren aurrekontuko funts propioen kargura (gainerako ehuneko).

Eguzki instalazio fotovoltaikoak foru titulartasuneko herri jabariko ondasunak izango dira, eta "erabiltzeko prest" modalitatean gauzatu dira, honako hauek jasoz: egikaritze proiektua edo memoria teknikoa, ekipoen eta materialen hornidura,

Procede, en consecuencia, establecer el marco de colaboración y las obligaciones que asumen ambas partes a fin de llevar a cabo la iniciativa expuesta.

Citar el acuerdo de Consejo que dará cobertura a toda la operación.

CLÁUSULAS:

Primera.- Objeto del Convenio.

Es objeto del presente Convenio regular las condiciones de colaboración entre la Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Elduain tal para la instalación de (número de instalaciones) de energía solar fotovoltaica en la cubierta de (citar los edificios públicos municipales) de ese término municipal para su explotación a través de una comunidad energética local.

Segunda.- Obligaciones que asume la Diputación Foral de Gipuzkoa.

- a) La DGMA se encargará del diseño y ejecución de las instalaciones solares fotovoltaicas, comprometiéndose a llevar a cabo la tramitación administrativa para la contratación de dichas obras, desde su inicio hasta su recepción, siendo responsable, asimismo, de la dirección técnica de las obras y del cumplimiento de todos los trámites precisos para la correcta y total ejecución de las mismas. Para ello, asumirá la financiación total de las obras, con cargo a la subvención recibida por el EVE para dicho proyecto, que constituye el 38% del coste, así como a fondos propios del presupuesto de la DGMA por el porcentaje restante.

Las instalaciones solares fotovoltaicas, que tendrán el carácter de bienes demaniales de titularidad foral, serán ejecutadas en la modalidad "llave en mano", incluyendo el proyecto de ejecución o memoria técnica, el suministro de equipos y materiales, la



instalazioa, monitorizazioa, administrazio izapiseak, inartxan jartzea eta 5 urteko mantentze kontratua, instalazioa funtzionatzen hasten denetik zenbatzen hasita.

- b) Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak bultzatuko du tokiko energia komunitate bat eratzea udalerrian, irabazi asmorik gabeko erakundea, udalerriko herritarren eta merkatarien partaidetza irekian eta borondatezkoan oinarritua. Partaide horiek, Udalarekin batera, instalazioetatik 500 metro baino gutxiagora egon beharko dute kokatuta, eta tokiko energia komunitatearen helburu nagusia izango da kideei ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-onurak ematea, finantza-irabaziak eman beharrean. Irabazi horiek pobrezia eta zaurgarritasun energetikoarekin lotutako irizpide espezifikoak izango dituzte. Instalazioen ustiapena eta, ondorioz, horietan sortzen den energia tokiko energia komunitatearen aldeko doako kanon bidezko administrazio emakidaren xede izango da, eta emakida horrek zehaztuko ditu bazkideen arteko banaketa koefizienteak.
- c) Gipuzkoako Foru Aldundiak izango du instalazioen titulartasuna 5 urtez, instalazioak abian jartzen direnetik kontatzen hasita. Epe hori EEEK 2021eko irailaren 22an eman zuen Ebazpenaren 11. oinarrian ezarrita dago, eta urte horietan Foru Aldundiak bere gain hartuko ditu instalazioen mantentze, jarduera eta monitorizazio lanak eta erantzukizun zibileko aseguruua. Epe hori igarotakoan, ondasunen desafektazioa egin ondoren, eta Batzar Nagusiek dagokion baimena ematen badute, ondasun horiek doan besterenduko dizkio udalari, onura publikoko eta gizarte intereseko arrazoiak direla medio; beraz, Aldundiak horien gainean duen erantzukizun oro bertan behera geratuko da.
- d) GFA lankidetzan arituko da udalarekin udalerrri bakoitzean tokiko energia komunitatea dinamizatzeko, sustatzeko eta publizitatea egiteko, eta laguntza tekniko espezializatua eta beharrezko aholkularitza juridikoa emango dizkio energia

instalación, monitorización, la tramitación administrativa, la puesta en funcionamiento y un contrato de mantenimiento de 5 años, contados a partir de la entrada en funcionamiento de la instalación.

- b) La DGMA impulsará la constitución de una CEL en el municipio, entidad sin ánimo de lucro basada en la participación abierta y voluntaria de ciudadanos y comerciantes del municipio que, junto con el Ayuntamiento, deberán estar situados/as a menos de 500 metros de las instalaciones, siendo finalidad primordial de la CEL proporcionar beneficios medioambientales, económicos y sociales a sus miembros, en lugar de ganancias financieras, las cuales incorporarán criterios específicos relacionados con la pobreza o vulnerabilidad energética. La explotación de las instalaciones y, en consecuencia, la energía que se genere por las mismas será objeto de concesión administrativa con canon gratuito en favor de la CEL, la cual determinará los coeficientes de reparto entre sus asociados.
- c) La DFG ostentará la titularidad de las instalaciones durante 5 años contados desde la puesta en funcionamiento de las mismas, período de tiempo establecido por EVE en la Base 11 de la Resolución de 22 de septiembre de 2021 anteriormente citada, durante el que se hará cargo del mantenimiento, operación y monitorización y seguro de responsabilidad frente a terceros de las mismas. Transcurrido dicho plazo, previa desafectación de los bienes y siempre que las Juntas Generales otorguen la autorización pertinente, procederá a la enajenación gratuita de dichos bienes en favor del Ayuntamiento por causa de utilidad pública e interés social, cesando, por tanto, toda responsabilidad de la Diputación en relación con las mismas.
- d) La DFG colaborará con el ayuntamiento en la dinamización, promoción y publicidad de la comunidad en cada municipio, y pondrá a su disposición una asistencia técnica especializada y el asesoramiento jurídico necesario para la constitución de las



komunitateak eratzeko.

comunidades energéticas.

- e) Gipuzkoako Foru Aldundiak berariazko tailerrak sartuko ditu Gipuzkoako herritarrei zuzendutako energia informazioko eta aholkularitzako Argitu programan tokiko energia komunitateko bazkideentzat, pertsona horiek energia gaiari buruz oro har duten ezagutza areagotzeko eta energia trebetasunak ugaritzeko, energia berriztagarria kolektiboki kontsumitzeaz gain, energiaren faktura murrizteko gai izan daitezen, beren kontsumoak optimizatuz eta etxeetan energia aurrezpeneko eta efizientziako neurriak ezarriz.

- e) La DFG incluirá en el Programa Argitu de información y asesoría energética dirigido a la ciudadanía guipuzcoana, talleres específicos para las socias y socios de la CEL, con el objeto de incrementar el conocimiento de estas personas en temas energéticos en general e incrementar sus habilidades energéticas para que además de consumir colectivamente energía renovable sean capaces de reducir su factura energética mediante la optimización de sus consumos y la implementación de medidas de ahorro y eficiencia energética en sus hogares.

Hirugarrena.- Elduaingo Udalak bere gain hartzen dituen betebeharrak.

Tercera.- Obligaciones que asume el Ayuntamiento de Elduain

- a) Elduaingo Udalak doan ematen dio baimena GFARI eguzki panel fotovoltaikoak jartzeko lehenengo klausulan aipatutako udal estalkietan, bost urtez, instalazioak funtzionatzen hasten direnetik hasita. Epe hori amaitzean, bigarren klausulako c) letran aurreikusitakoaren arabera, doan besterenduko zaizkio udalari, eta, ondorioz, udal jabetzakoak izatera igaroko dira, eta instalazioak herri jabariko ondasun gisa sartu beharko dira udal inbentarioan.

- a) El Ayuntamiento de Elduain autoriza de forma gratuita a la DFG la instalación de paneles solares fotovoltaicos en las cubiertas municipales citadas en la cláusula primera, por un período de cinco años contados a partir de la entrada en funcionamiento de las instalaciones, a cuyo término, y conforme a lo previsto en el apartado c) de la cláusula segunda, serán objeto de enajenación gratuita en favor del ayuntamiento y pasarán, por consiguiente, a ser de propiedad municipal debiéndose incorporar las instalaciones al inventario municipal como bienes de carácter demanial.

Era berean, Udalak tokiko energia komunitateari lagako dio instalazioen ustiapena eta haietan sortzen den energia, gutxienez hogeitaurterako, eta komunitate horrek bere gain hartu beharko ditu mantentze kostua eta instalazioen gaineko erantzukizuna.

Asimismo, el Ayuntamiento cederá en favor de la CEL la explotación de las instalaciones y la energía que se genere en las mismas por un plazo no inferior a veinte años, debiendo asumir dicha comunidad el coste de mantenimiento y responsabilidad de las mismas.

- b) Udalak instalazio hori egiteko behar diren udal baimenak eman beharko ditu, eta baimen horien kostua bere gain hartuko du. Era berean, hitzarmena indarrean dagoen bitartean, udal estalkietarako sarbidea erraztu beharko die bai kontratista adjudikaziodunari/emakidadunari bai

- b) El Ayuntamiento deberá otorgar los permisos y autorizaciones municipales necesarios para ejecutar la citada instalación asumiendo el coste que pueda derivarse de los mismos, así como facilitar el acceso a las cubiertas municipales durante el período de vigencia del presente Convenio, tanto al contratista adjudicatario/ concesionario como a los/as



Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko

técnicos/as de la DGMA.


- c) Udalerrian eratzen den tokiko energia komunitatearen parte izango da Udala, eta aktiboki parte hartuko du hura sortzen, bizilagunen artean dinamizatu, sustatu eta publizitatea egiteko jardueretan lagunduz.
- d) Edozein arrazoi dela-eta ezin bada sortu tokiko energia komunitatea, udalaren esku geratuko da udalerrian aurreikusitako eguzki instalazio fotovoltaikoen ustiapena, eta bermatu beharko du udal eraikin edo instalazioen autokontsumo modalitatean soilik erabiliko dela. Kasu horretan, eta instalazioa egin eta lehenengo bost urteetan, bigarren klausulako c) letran aipatutako administrazio emakida Udalaren aldekoa izango litzateke, tokiko energia komunitaterik ez dagoelako.
- e) Edozein arrazoiengatik tokiko energia komunitatea iraungitzen bada, udalak bere gain hartu beharko du instalazioen ustiapena, eta sortzen den energia erabili beharko du kontsumo publikoak estaltzeko.
- f) Instalazioen titulartasuna Udalari eskualdatu ondoren, Udalak bete beharko ditu EEEK 2021eko irailaren 22ko Ebazpenean (EHAA, 197. zk., 2021eko urriaren 1ekoa) xede dituen laguntzen onuradunentzat ezarritako betebeharrak guztiak.
- c) El Ayuntamiento formará parte de la CEL que se constituya en el municipio y participará activamente en su creación, colaborando en las actividades de dinamización, promoción y publicidad entre el vecindario.
- d) En el supuesto de que por cualquier razón no fuera posible la creación de la CEL, la explotación de la instalación o instalaciones solares fotovoltaicas previstas en el municipio quedará en manos del ayuntamiento, que deberá asegurar su uso únicamente en la modalidad de autoconsumo de edificios o instalaciones municipales. En este caso, y durante los cinco primeros años de la instalación, la concesión administrativa citada en el apartado c) de la cláusula segunda sería en favor del Ayuntamiento, ante la ausencia de una comunidad.
- e) En el supuesto de que, por cualquier circunstancia se extinguiera la CEL, el ayuntamiento deberá hacerse cargo de la explotación de las instalaciones y destinar la energía que se genere a cubrir los consumos públicos.
- f) Una vez traspasada la titularidad de las instalaciones al Ayuntamiento, éste deberá cumplir todas las obligaciones establecidas por EVE en su Resolución de 22 de septiembre de 2021 (BOPV nº 197, de 1 de octubre de 2021) para los beneficiarios de las ayudas objeto de la misma.

Laugarrena.- Indarraldia, iraungipena eta ez-betetzeak

Hitzarmenak ondorioak izango ditu sinatzen denetik eta ordutik aurrera behartuko ditu esku-hartzaileak, eta lau urteko iraupena izango du. Energia iturri berriztagarriko autokontsumoarekin eta biltegiatzearekin lotutako pizgarri-programaren oinarri arautzaileak onartu, deitu eta argitaratu zituen EEEren 2021eko irailaren 22ko Ebazpenean ezarritako baldintza betetzeko,

Cuarta.- Período de vigencia, extinción e incumplimientos.

El convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, estableciéndose una duración de cuatro años. A fin de cumplimentar el requisito establecido por EVE en la Resolución de 22 de septiembre de 2021 anteriormente citada, por la que se aprobaron, convocaron y publicaron las bases reguladoras del programa de incentivos ligado al autoconsumo y al almacenamiento, con fuentes



indarraldeko epea amaitu aurretik, hitzarmenaren sinatzaileen arte batez adostu ahal izango dute hura luzatzea, harik eta eguzki instalazioak udalei doan besterendu arte, eta luzapen hori ezingo da lau urte baino gehiagokoa izan.

Hitzarmena iraungiko da aurreko klausulan aipatutako indarraldia igaro delako edo Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 51. artikuluan ezarritako edozein arrazoiengatik.

Aldeetako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak eskubidea izango du zorrotz bete dadin eskatzeko, edo hitzarmena suntsiarazteko eskatzeko, alderdietako edozeinek hitzarmenaren amaiera iragarri ondoren, idatziz eta modu fede-emailean jakinarazita, gutxienez hilabete lehenago. Hitzarmena suntsiarazten bada, bi alderdiek erabakiko dute zer baldintzatan amaituko diren eta ordainduko diren gauzatzen ari diren jarduketak, eta, hala badagokio, gero zer baldintzatan entregatuko diren.

Hitzarmena ez betetzeagatik suntsiarazten bada, eragindako gastuen kalte-ordaina emango da.

Bosgarrena.- Jarraipen Batzordea.

Jarraipen batzorde bat eratuko da, lau ordezkari osatua: bi Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentukoak (Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko zuzendaria eta Ingurumen Zerbitzuko burua), eta beste bi Udalekoak. Horien zeregina izango da hitzarmen hau betetzen dela zaintzea, eta instalazioen egikaritzearen eta tokiko energia komunitatearen eraketaren jarraipena egitea.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, eta edozein alderdik proposatuta, batzordea bilduko da jarduketan martxa onak eskatzen duen bakoitzean.

Seigarrena.- Izaera eta araubide juridikoa.

Hitzarmen hau administratiboa da, eta, interpretatzeko eta garatzeko, aplikatzekoa den ordenamendu juridiko-administratiboari jarraituko zaio, zehazki, Sektore Publikoaren Araubide

de energía renovable, en cualquier momento antes de la finalización del plazo de vigencia, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga hasta que se produzca la enajenación gratuita de las instalaciones solares en favor de los Ayuntamientos, la cual no podrá ser superior a cuatro años.

El convenio se extinguirá bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior o por cualquiera de las causas establecidas en el artículo 51 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

En caso de incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, a exigir su estricto cumplimiento, o solicitar la resolución del convenio, previa denuncia por cualquiera de las partes mediante comunicación escrita fehaciente con un plazo de antelación de al menos un mes. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución y, en su caso, para la posterior entrega de las mismas.

La resolución del convenio por incumplimiento, dará lugar a la indemnización de los gastos ocasionados.

Quinta.- Comisión de Seguimiento.

Se constituirá una comisión de seguimiento, compuesta por cuatro representantes, dos del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa (persona titular de la Dirección General de Medio Ambiente y de la Jefatura de Servicio de Medio Ambiente) y otros dos del Ayuntamiento, los cuales velarán por el cumplimiento del presente Convenio, llevarán a cabo el seguimiento de la ejecución de las instalaciones y la constitución de la comunidad energética local.

Durante la vigencia del Convenio, y a propuesta de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones.

Sexta.- Naturaleza y régimen jurídico.

El presente Convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable, en concreto por lo



Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoari.

Alderdi parte-hartzaile bakoitzak bere gain hartuko ditu soilik lankidetzaren hitzarmen honen ondorioz hartzen dituen konpromisoak dagozkien erantzukizunak.

Hitzarmen hau interpretatu eta betetzeko orduan auzirik sortzen bada, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardura eta eskumena izango da horiek ebaztea.

Eta esandako guztiarekin bat datozela agertzeko, bi alderdiek izenpetu egiten dute, bi aletan, esandako egunean eta tokian.

ALKATE LEHENDAKARI

Sin./Fdo.: OIHANA AMUNDARAIN

dispuesto, en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Cada parte interviniente asume únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contrae en virtud del presente convenio de colaboración.

Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en su interpretación y cumplimiento serán de conocimiento y competencia del orden jurisdiccional de lo Contencioso-Administrativo.

Y en prueba de conformidad con lo establecido lo firman los comparecientes en duplicado ejemplar en el lugar y fecha señalados.

**INGURUMENENKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO FORU
DIPUTATUA/EL DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE Y
OBRAS HIDRÁULICAS,**

Sin./Fdo.: JOSÉ IGNACIO ASENSIO

Eta besterik gabe gaiaren bozketa egiten da.

Eta Udal Batzarrak, bildutakoan ahobatezko, ERABAKI DU:

Lehenengoa: Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren eta Elduaingo Udalaren arteko hitzarmena, Udal estalkietan eguzki panel fotovoltaikoak jartzeko autokontsumo partekatuko erregimenean, tokiko energia komunitateen bidez.

Bigarrena: Alkateari ahalmena ematea aipaturiko lankidetzaren hitzarmena sinatzeko.

Besterik gabe, 20:28an, Presidentetzak batzarra amaitutzat jo du, eta akta hau egin dut, nik, idazkari honek, gertaturiko guztia zehatz jasota. Fede ematen dut

O.E.
Alkateak,

Oihana Amundarain Zubillaga,

Udaleko idazkari - kontu-hartzailea,

Maria Pilar Garmendia Miguel



I. ERANSKIN



ELDUAINGO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ARTEKO URAREN ZIKLO OSOAREN KUDEAKETARAKO KUDEAKETA AGINDUA ETA HURA ARAUTZEN DUEN HITZARMENA

ELDUAINen, 2022ko ekainaren 22an.

BILDURIK

Alde batetik, Olatz Peon Ormazabal andrea, duen herri-kargua dela eta bere xehetasun pertsonalak agertzeko beharrik ez duena.

Eta bestetik Oihana Amundarain Zubillaga andrea, duen herri-kargua dela eta bere xehetasun pertsonalak agertzeko beharrik ez duena.

ESKU HARTZEN DUTE

Olatz Peon Ormazabal Andreak, GIPUZKOAKO UR-KONTSORTZIOAren izenean, joan den 1998ko otsailaren 20ko GAOean argitaratu ziren erakundearen Estatutuek diotenaren arabera duen ordezkari-tza erabiliz.

Oihana Amundarain Zubillaga Andreak, ELDUAINGo udal Gorenaren izenean, Alkate-Lehendakaria izanik eta joan den 2022ko ekainaren 21ean egin zen Udal-Korporazioaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren arabera egintza honetarako baimendua izan denak. Aipatutako erabakiaren ziurtagiria Udaleko Idazkariak izenpetuta hitzarmen honi eranstean zaio.

XEHETASUNAK

Lehenengo.- Gipuzkoako Ur-Kontsortzioa Gipuzkoako hainbat udalek –horien artean ELDUAINGo– eratu duten elkarte-oinarria duen zuzenbide publikoko erakundea da. Honako hau da erakunde horren xedea: *“sare primarioetan saneamendua eta ura hornitzeko azpiegituraren ezarrera eta ustiapena eta dagozkion zerbitzuak prestatzea, guzti hori baldintza egokietan eta indarrean dagoen araudiaren arabera.”*. Estatutuetako xedapen horren arabera, Kontsortzioak ELDUAINGo udalerrian saneamendua eta ur-horniduraren “goiko” sarearen zerbitzu publikoa kudeatzen du.



Bigarren.- Kontsortzioaren Estatutuen 7.2. artikulua honela dio: *“hala erabakiko denean, Kontsortzioak ur-zikloaren helburuak zabal ditzake, interesa duten udalekin ados jarrita eta haiekin dagokion hitzarmena izenpetu ondoren”*. Kontsortzioko Batzar Nagusiak joan den 2000ko abenduaren 21ean egin zuen bileran hartu zuen erabaki hori.

Era berean, Udal Erregimeneko Oinarrien 7/1985 Legeak, Udalek, horrela nahi dutenean, Hornidurako eta Saneamenduko Zerbitzua modu Kontsortzian eman dezaketela ezartzen du.

Hirugarren.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA toki-erakunde den aldetik, zerbitzu publikoak prestatzeko modu desberdinak erabil ditzake, beti ere, lege xedapenen arabera –Toki-Jaurbidearen gaitan indarrean dauden lege-xedapenen eraberritutako Testuaren 110.5. art.– eta estatutuetako xedapenen arabera –9. art.–. Zentzu horretan eta bere zerbitzuak kudeatzeko GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK kapital erabat publikoaz osatuta dagoen sozietate anonimoa du eratuta: GIPUZKOAKO URAK E.A.

Laugarren.- ELDUAINgo udalak interes handia du URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa, bi sareen kudeaketa sartuz, “goia” eta “behea”, baita beharrezko diren inbertsioak egitea ere, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN eskuan jarraitzea, Gipuzkoako Urak, E.A.-ren bitartez.

Beraz, beharrezko lege eta jardutze-ahalmena ezagutzen diote elkarri eta HITZARMEN hau KUDEAKETA AGINDUA formalizatzen duena, izenpetzea erabaki dute ondorengo atalen arabera.

ATALAK

Lehenengoa.- ELDUAINgo udalak, hitzarmen honen ondorioz eta *Udal Erregimeneko Oinarrien 7/1985 Legearen* arabera, URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku, Gipuzkoako Urak, E.A.-ren bitartez, uztea erabakitzen du, honek hornidura eta saneamenduko “goiko” eta “beheko” sareen kudeaketa barnean hartzen ditu, baita beharrezko diren inbertsioak egitea ere. Horretarako, ELDUAINgo Udalak, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI emakida, emarien ustiapenak, azterlanak, proiektuak, sareak eta instalazioak eta kontsortziotatutako zerbitzuak emateko gainontzeko baliabide guztiak ematea erabakitzen du.

Bigarrena.- ELDUAINgo Udalak, zuzenbide-ordenamenduak horretarako bidea ematen duen heinean, berak dituen aginpide, eskuduntza, eskumen, ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiak, zerbitzuak eta bere xede eta jomuga diren helburuak ematearekin zerikusia dutenak GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku uztea erabakitzen du.



Hirugarrena.- ELDUAINgo Udalak, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK aurkeztutako azterlan ekonomikoa onartzea erabakitzen du, hitzarmen honi erantsitakoa.

Laugarrena.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK ELDUAINgo udalerriko URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa 2022ko urriak 1etik aurrera bere gain hartuko du.

Bosgarrena.- KUDEAKETA AGINDUA honek gutxienez 10 urteko iraupena izango du. Epe hori pasa ondoren, Udalak erabaki dezake, bere kasuan, zuzenbide-ordenamenduak une bakoitzean bide ematen dion heinean beste edozein modutara zerbitzua ematea, horretarako dagozkion erabakiak hartuz eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkion urratsak emanez, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI sei hilabete LEHENAGO jakin araziz.

Behin hasierako 10 urteko epealdia pasa ondoren, aurreko zatian aurreikusitako berarizko uko egitea ematen ez bada, KUDEAKETA AGINDUA luzatuta ulertuko da Udalak, bere kasuan, zuzenbide-juridikoak ematen dizkion eskumenaz baliatuz, zerbitzua beste modu batetara ematea erabakitzen duen arte. Hala eta guztiz ere, Udalak, bere kasuan, zerbitzua kontsortziatu eran ematea deusezteza erabakiko balu, deuseztapena baino lehen, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI ordaindu beharko zaio, zenbatekoa kalkulatu da hartuaz Kontsortzioak udalerrian egindako inbertsioak eta berrikuntzak eta ELDUAINgo Udalari emandako konpuruak ken Kontsortzioak ELDUAINen inbertsio eta berrikuntzarako jasotako kopuruak. Kontrakoa gertatuko balitz, aipatutako kopurua GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK ELDUAINgo Udalari ordaindu beharko dio.

Seigarrena.- Zerbitzuaren tasak eta prezioak, baita udalerriko abonatuei aplikagarri diren ordenantzak, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN proposamenez bere egunean ELDUAINgo Udalak onartutakoak GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOKO Batzar Nagusiak urtero eguneratuko ditu, aipatutako tasen tarifa-egitura aldatu gabe.

Zazpigarrena.- Gipuzkoako Ur Kontsortzioak bere gain hartzen du, bermatzen du eta behartzen da, lan honen ondorioz eskura dituen sistemei eta/edo informazioari dagokienez, erabateko segurtasuna eta konfidentzialtasuna betetzea, indarrean dagoen legediaren arabera. Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko konpromiso zehatza hartzen du.

Ildo horretatik, datu pertsonalak babestearen arloan aplikatzekoa den legerian xedatutako aginduak bete beharko ditu.

Zortzigarrena.- Hitzarmenak izaera administratiboa du eta haren sorrera, ulerkuntza, aldaketa edo suntsiarazpenaren inguruan sor litezkeen arazoak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren aurrean konponduko dira.



Eta guztiarekin bat datozela agertzeko, Hitzarmen hau izenpetu egiten dute, bi aletan eta ondorio batetarako, esandako egunean eta tokian.

ELDUAINen, 2022eko ekainaren 22an.

Izenp.: Olatz Peon Ormazabal And.

Izenp.: Oihana Amundarain Zubillaga And.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Lehendakaria

ELDUAINgo Alkate-Lehendakaria